


Euskadin sexu-erasoak salatzen dituzten 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen kopurua % 10,5 jaitsi da

2015ean, 111 emakume gaztek sexu-askatasunaren aurkako erasoak jasan zituzten

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak [Gazteen Euskal Behatokiari](#) emandako datuen arabera, 15 eta 29 urte bitarteko 111 emakumek salaketak jarri zituzten sexu-erasoengatik 2015ean.

111 emakume gazte hauek Euskadin sexu-erasoen biktima diren emakume guztien artean % 43,5 dira.

Aurreko urtearekin alderatuz sexu-askatasunaren aurkako erasoaren biktima izan diren emakume gazteen kopurua % 10,5 gutxitu da eta 30 urtetik gorako emakumeen artean jaitsiera handiagoa izan da, %17,5.



Sexu-erasoen biktima izan diren emakume gazteen kopurua lurralde historiko edo adin tarte bakoitzeko jakin nahi baduzu [Gazteen Euskal Behatokiako Estatistikak](#) kontsultatu ditzakezu, "**Balioak eta Jarrerak**" atala, "**Emakumeenganako indarkeria**" azpiatala.